

## **AKTA, 2003KO URTARRILAREN 16KOA**

**Organoa:** Udalbatzarra

**Batzarra:** osoko bilkura berezia

**Deialdia:** lehenengoa

**Eguna:** 2003/01/16

**Ordua:** Hasiera 19:00 – Amaiera 20:00

**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Bertaratuak:**

Alkatea: JOSE MARIA MATXAIN ARTOLA

Zinegotziak:

SANTIAGO GARMENDIA OLANO  
JOSE MANUEL IBAÑEZ IBAÑEZ  
JOAQUIN GARMENDIA ZUBELDIA

Idazkaria: MARIA SOLEDAD ALCAYAGA GARMENDIA

### **AZTERGAIAK:**

- 1) Alkate ebazpenen berri ematea.
- 2) Aurreko bileretako agirien onestea.
- 3) 2000tik 2002arteko ekitaldietako dokumentazioa artxibatzeke pertsonala kontratatzeke proposamena onestea.
- 4) Batzuk.

## **ESAN EGINAK**

### **1) Alkate ebazpenen berri ematea.**

Ondorengo zenbakiekin alkateak emandako ebazpenen berri eman da:

2002/24tik 2002/32

### **2) Aurreko bileretako agirien onestea.**

Ondorengo bileretako agiriak onetsi ditu udal batzarrak, aho batez:

2002/10/18; 2002/10/28 eta 2002/12/19.

### **3) 2000tik 2002arteko ekitaldietako dokumentazioa artxibatzeke pertsonala kontratatzeke proposamena onestea.**

Kontuen Komisio Berezia, Administrazioa eta Komunitate Ongizate batzordeak, hil honen 10ean egindako bileran diktaminatutakoarekin bat etorri, udal batzarrak, aho batez, erabaki du: Udal artxiboa eguneratzeko, Gerardo Uribetxeberria Ezpeleta eta Ainhoa Saizar Lacarra administrari laguntzailea zuzenean kontratatzea. Kontratazio denbora: lana amaitu artekoa izango da. Soldatak: udalean aplikatzen den hitzarmeneko 15. eta 9. maila aplikatuko zaie.

Bi langile hauek, udal artxiboetan adituak dira. Gainera Gerardo da Gaintzako udal artxiboa lehenago antolatu zuena, beste zenbait herrietako artxiboak bezelaxe. Hori da kontratazioa onartzerakoan erabilitako argudioa.

### **4) Batzuk.**

Azkenik, Otegi-enea inguruan gas propanozko bonbonak gordetzeko txabola jartzeko eta edarien kaxak uzteko egokitze lanak egiteko Franzisko Jabier Matxain Garmendia jaunak aurkeztutako eskaeraz irekitako espedientearen berri eman da. Gainera informatzen da, 2003ko urtarrilaren 10ean egindako laneko bileran erabaki bezala, arkitektoa egon zela interesatuarekin obra egin asmo duen lekuan eta hau ados geratu zela etxearen kontra, arkitektoak adierazitako lekuan bonbonak jartzeko baimena eskatuz dokumentazio berria aurkezteko. Hori horrela, lehenagoko eskaera ez ebaztea deritzo alkateak, eskaera berria aurkeztu arte. Idazkariak ordea, aurkeztutako eskaera ebaztea aholkatzen du. Alkataeren iritzia nagusitzen da.

Besterik gabe, bilera amaitu da goiean adierazitako leku eta orduan.